10.3. Udal onuradunak 10 eguneko epea izango du, argitaratzen den datatik aurrera, dirulaguntza onartzeko, eta berariaz kontrakoa jakinarazten ez bada, isilbidez onartutzat joko da.

11. oinarria. Udalerrri onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

Udalerrri onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar betebehar batzuei lotzea. Betebehar horiek orokorki ezartzen dituzten arauak hauek dira: oinarri hauek; 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; foru arau hori garatzen duen erregelamendua, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsia, eta dirulaguntzen arloan aplikatzeko den gainerako araudia. Edonola ere, honako hau bete beharko dute onuradunek:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituen egiaztapen jarduketan mende jarri beharko dira, eta, halaber, 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideiari buruzkoak, finantza-kontrolerako xedatzen dituen jarduketan mende eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legeriak ezartzen dituenen mende. Horretaz gain, diruz lagundutako jarduketak aurrera eraman eta gauzatzeari buruz eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko dute.

b) Jasotako diruaren erabilera egiaztatzen duten agiriak gorde beharko dituzte, egiaztatu eta ikuskatu daitezkeen bitartean.

c) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutako printzipio orokorrak eta aginduak bete beharko dituzte diruz lagundutako jarduketetan.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatu beharko dute diruz lagundutako dokumentuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, material-sorkuntzan eta zabalkunde-ekintzetan.

e) Dagokien publizitatea eman beharko diete diruz lagundutako dokumenturako Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak egiten duen sustapenari eta ematen duen finantzaketari. Horretarako, berariaz aipatuko da Foru Aldundiak laguntza eman duela, genero-ikuspegia udal hirigintza tresnetan txertatzea finantzatzeko daukan egitasmoaren barruan.

12. oinarria. Ebazpena aldatzea.

12.1. Udalerrri onuradunek aukera izango dute, diruz lagundutako proiektua edo jarduketak gauzatzeko epea amaitu aurretik, organo emaileari ebazpenean aldaketa hauek egin ditzala eskatzeko: zehaztutako epeak zabaltzeko, emandako diru kopurua murrizteko, edo jarduketan sartutako ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimendu egingo dira baldin eta aurreikusi gabeko gorabeherek eragindakoak badira edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoak badira. Horretarako, bi baldintza hauek bete beharko dira: dirulaguntzaren xedea edo helburua ez aldatzea, eta hirugarrenen eskubideak ez kaltetzea.

12.2. Dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango du, ofizioz, erakunde interesdunari entzun ondoren eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzeak eragotzi edo zaildu egiten badu lortu nahi den interes publikoa lortzea, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez badio.

12.3. Dirulaguntza ematen duen organoak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta udalerrri onuradunak egindako justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emate-

10.2. El plazo máximo para notificar la resolución será de 4 meses, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria. Al vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

10.3. El ayuntamiento beneficiario dispondrá de un plazo de 10 días, a partir de la fecha de la publicación, para su aceptación, que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

Base 11.ª Obligaciones y compromisos de los municipios beneficiarios.

La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones; en todo caso, deberán:

a) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por la Diputación Foral de Gipuzkoa, a las actuaciones de control financiero previstas en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, facilitando cuanta información complementaria le sea solicitada en relación con el desarrollo y ejecución de las actuaciones subvencionadas.

b) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación e inspección.

c) Cumplir en sus actuaciones subvencionables con los principios generales y mandatos establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y demás normativa aplicable en la materia.

d) Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del documento subvencionado.

e) Dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio del documento objeto de subvención, mediante la inclusión de una mención expresa de la ayuda recibida en aplicación del programa de esta Diputación Foral destinado a financiar la integración de la perspectiva de género en los instrumentos urbanísticos municipales.

Base 12.ª Modificación de la resolución.

12.1. Los municipios beneficiarios podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización del proyecto o actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

12.2. El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

12.3. Cuando el municipio beneficiario de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la conce-

ko kontuan hartutako baldintzetan aldaketak izan direla eta aldaketa horiek, adierazitakoaren arabera, ebazpenaren aldaketa eragin zezaketela eta ez zela bete aldaketa hori onartua izateko alde aurreko baimen administratiboaren tramitea, eta betiere onarpen horrek hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

13. oinarria. Dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.

13. Diruz lagundutako jarduketak dirulaguntza esleitu den ekitaldiko abenduaren 1a baino lehen gauzatu eta justifikatu behar dira. Justifikazioak epe barruan aurkezten ez badira, laguntzak galdu egingo dira.

13.2. Justifikazioarekin batera dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 32.5 artikuluan, dirulaguntzen ordainketarako ezartzen dituen baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentua: erantzukizunpeko deklarazioa, erakundeak bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela ziurtatzen duena.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, honako hauek identifikatuta: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data, eta, hala badagokio, ordainketa data. Dirulaguntzaren eskaerarekin batera aurkeztutako aurrekontuarekiko izan diren desbiderapenak adieraziko dira.

c) Dirulaguntza-eskaerarekin batera aurkeztu ez bada, ziurtagiri hau: aholkularitza edo laguntza teknikoko lanen kontratazioa adjudikatzeo udal erabakiaren edo erabakien ziurtagiria.

Nolanahi ere, zerbitzuen administrazio-kontratuaren kopia behar bezala kautotua aurkeztu beharko da, preskripzio teknikoaren agiriarekin eta administrazio-klausula partikularrekin batera, baldin eta kontratu horien helburua bada indarreko legeriaren arabera beharrezkoak edo galdagarriak diren dokumentuak eta azterlanak egitea, 3. oinarrian definitutako diruz laguntzeko moduko jardueretan genero-ikuspegia txertatzeko. Kontratua egitean dokumentazio hori nahitaezkoa ez bada, nahikoa izango da kontratatutako prestazioa eta haren zenbatekoa egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztea.

d) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan frogabali baliokidea duten dokumentuak, edo administrazio eraginkortasuna dutenak; eta oinarri honetako b) ataleko zerrendan sartutako beste gastu batzuen egiaztagiria, eta, hala badagokio, ordaindu izana egiaztatzen duen dokumentazioa.

e) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru-sarreraren zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

13.3. Dokumentazioa aurkeztuta, eta Lurralde Plangintzako Zerbitzuak txostena egin ondoren, justifikatutako zenbatekoa ordainduko du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

13.4. Gipuzkoako Foru Aldundiak, beharrezkotzat joz gero, egokitzen dituen agiri osagarriak eska diezazkieke udalei, egindako gastuak eta horiek zertan egin diren egiaztatzeko.

13.5. Aldez aurreko ordainketak egin ahal izango dira, dirulaguntzari loturiko jarduketak egin ahal izateko beharrezko den finantzazio gisa.

Gainerako zenbatekoa proiektua amaitzean ordainduko da, oinarri honen 13.2. atalean jasotako justifikazioa aurkeztu ondoren. Nolanahi ere, proiektua edo jarduketa amaitu aurretik ordaindu ahal izango da zenbateko hori osorik, dirulaguntzari loturiko jarduketak gauzatu ahal izateko beharrezkoa den finantzazio gisa.

14. oinarria. Ez-betetzeak eta itzulketak.

14.1. Udalerrri onuradunak ez baditu betetzen oinarri hauek, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, foru arau hori gara-

sión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución conforme a lo indicado, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceras personas.

Base 13.^a Justificación y pago de la subvención.

13.1. Las actuaciones subvencionadas deberán ejecutarse y justificarse antes del 1 de diciembre del ejercicio en que se haya consignado la subvención. La falta de justificación en plazo conllevará la pérdida de las subvenciones correspondientes.

13.2. La justificación deberá incluir la siguiente documentación:

a) Documentación justificativa de que cumple los requisitos que para el pago de subvenciones se indican en el artículo 32.5 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa: Declaración responsable de que cumple con sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

b) Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. Se indicarán las desviaciones acaecidas en relación con el presupuesto presentado con la solicitud de subvención.

c) Si no se ha aportado con la solicitud de concesión de la subvención, certificación del acuerdo o acuerdos municipales por los que se adjudicó la contratación de los trabajos de consultoría y asistencia técnica.

En todo caso, deberá aportarse copia debidamente autenticada del contrato administrativo de servicios, junto con los pliegos de prescripciones técnicas y cláusulas administrativas particulares, cuyo objeto sea la realización de los documentos y estudios necesarios o exigibles de acuerdo con la legislación vigente para la inclusión de la perspectiva de género en las actuaciones subvencionables definidas en la base 3.^a En el caso de que en la celebración del contrato esa documentación no sea preceptiva, bastará con aportar los documentos que acrediten la prestación contratada y su importe.

d) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y justificantes de otros gastos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) de la presente base y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

e) Una relación detallada de otros ingresos que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

13.3. Presentada la documentación, y una vez informada por el Servicio de Planificación Territorial, la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá al abono de la cantidad justificada.

13.4. La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a los ayuntamientos, en caso de estimarlo necesario, la aportación de la documentación complementaria que estime pertinente a fin de comprobar los gastos realizados y su destino.

13.5. Se podrán realizar pagos anticipados como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

El abono de la cantidad restante se realizará a la conclusión del proyecto previa presentación de la justificación prevista en el apartado 13.2 de la presente base. No obstante, dicho importe podrá ser abonado en su totalidad con anterioridad a la finalización del proyecto o actuación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

Base 14.^a Incumplimientos y reintegros.

14.1. El incumplimiento por parte del municipio beneficiario de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos

tzen duen erregelamenduan –apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoan– eta aplikatzeko den gainerako araudian ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak, dirulaguntzak jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batez galdutzat joko da, eta dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu, adierazitako foru arauaren 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Horretaz gain, hortik eratorririko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

14.2. Ezarritako baldintzen ez-betetzeak mailakatzeko, proportzionaltasunaren irizpideak erabiliko dira. Irizpide horiek organo instruktoreak balioetsiko ditu. Horretarako, ikusiko du jarduera edo proiektu osoa zein den eta zer zenbateko jaso diren eta, horren aldean, zer lan egin diren.

15. oinarria. Interpretazioa.

Oinarri arautzaileak interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo ondoreetan zalantzarik sortzen bada, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko titullarrak ebatziko du.

16. oinarria. Araubide juridikoa.

16.1. Oinarri arautzaile hauen xede diren dirulaguntzak arau hauek erregulatuko dituzte: oinarri hauek; 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; foru arau hori garatzeko erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsia, eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako araudia.

16.2. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak ez dira estatuen laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 107. artikuluko 1. puntuan xedatutakoaren arabera, ez baitakarte onurarik enpresa jakin batentzat, eta ez baitie ekoizpen edo enpresa jakin batzuei mesede egiten beste batzuen kaltean.

ERANSKINA

2021eko deialdia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei dirulaguntzak emateko, hain zuzen ere, genero-ikuspegia udal hirigintzako tresnetan txertatzeko gastuak finantzatzeko.

1. Oinarri arautzaileak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei genero-ikuspegia udal hirigintzako tresnetan txertatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, Diputatuen Kontseiluak 2021eko ekainaren 29ko Akordioaren bitartez onartutakoak eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoak dira.

2. Finantzaketa.

Deialdi honetarako gehieneko zenbatekoa berrehun mila eurokoa (200.000 €) izango da, aurrekontuko 1 0520.220.761.01.03 2021 partidaren kargura.

3. Eskakerak aurkezteko epea.

Eskaintzak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2021eko irailaren 15ean amaituko da (biak barne).

4. Jarduketak gauzatzeko epea.

Dirulaguntza jasotzen duten jarduketak 2021. urtean hasiko dira eta 2021eko abenduaren 1a baino lehen burututa eta justifikatuta egon behar dute.

en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y en su Reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente y al pago de los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la citada norma foral, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en su artículo 49 y siguientes.

14.2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados por el órgano instructor en función de los trabajos realizados respecto a la totalidad del proyecto o actividad y a los importes percibidos.

Base 15.ª Interpretación.

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación, aplicación y efectos de las presentes bases reguladoras será resuelta por la persona titular del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio.

Base 16.ª Régimen jurídico.

16.1. Las subvenciones objeto de las presentes bases reguladoras se regirán, además de lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, así como demás normativa aplicable en materia de subvenciones.

16.2. Las subvenciones reguladas en estas bases no constituyen ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no suponen un beneficio para una empresa ni favorecen a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras.

ANEXO

Convocatoria de 2021 para el otorgamiento de subvenciones a ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, destinadas a financiar los gastos derivados de la integración de la perspectiva de género en los instrumentos urbanísticos municipales.

1. Bases reguladoras.

Las bases reguladoras para la concesión de subvenciones a Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, destinadas a financiar los gastos derivados de la integración de la perspectiva de género en los instrumentos urbanísticos municipales, son las aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 29 de junio de 2021 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

2. Financiación.

La cuantía máxima para la presente convocatoria será de doscientos mil euros (200.000 €) con cargo a la partida presupuestaria 1 0520.220.761.01.03 2021.

3. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes será desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 15 de septiembre de 2021 (ambos inclusive).

4. Plazo de ejecución de las actuaciones.

Las actuaciones objeto de solicitud deberán iniciarse en el año 2021 y deberán estar finalizadas y justificadas antes del 1 de diciembre de 2021.

5. *Eskaera orriarekin aurkeztu beharreko agiriak.*

Eskaerak deialdiaren 1. eranskin gisa doan ereduari jarraituz aurkeztu behar dira, eta honako dokumentu hauek ere erantsi behar zaizkio:

– Dagokion udal organo eskudunak 6.2 oinarriari jarraiki dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

– Erantzukizunpeko berariazko adierazpena (deialdi honen 2. eranskin gisa doan ereduaren arabera), ziurtatzen dituen, batetik, ez duela erakunde onuradun izateko debekurik, eta, bestetik, xede bererako eskatu edo eskuratu dituen dirulaguntzak, diru sarrerak edo baliabideak.

– Aurrekontua, honakoak zehaztuta: dokumentua egiteko eta bideratzeko aholkularitza eta laguntza teknikoko lanen gastu osoa, dirulaguntzaren xede dena; ordaintzeko ezarritako modua, eta 2021. urterako aurreikusitako gastuaren zenbatekoa.

– Aholkularitza eta laguntza teknikoko lanen kontratazioa adjudikatzeke udal erabakiaren edo erabakien ziurtagiria.

– Horiek ordezkatzeko dituzten fakturak edo agiriak, egin diren lanen kostua egiaztatzen dutenak.

– Udal idazkariaren ziurtagiria, laguntza honen bidez finantzatzen diren lanetarako beste dirulaguntzarik ez dela ez eskatu ez jaso egiaztatzen duena.

6. *Jakinarazpenak.*

Eskatzaileei banan-banan jakinaraziko zaie dirulaguntza emateko edo, hala badagokio, ukatzeko ebazpena. Hala ere, organo eskudunak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu eman diren dirulaguntzak, hala agintzen baitu 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 17. artikuluan.

5. *Documentación a presentar con la solicitud.*

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se acompaña como anexo 1 a esta convocatoria, a la que deberá acompañarse la siguiente documentación:

– Certificado del acuerdo adoptado por el órgano municipal competente, solicitando la subvención en los términos de la base 6.2.

– Declaración expresa y responsable (conforme al modelo que se acompaña como anexo 2) de no estar incurso en las causas de prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria, así como de las subvenciones, ingresos o recursos solicitados u obtenidos para la misma finalidad.

– Presupuesto en el que se detalle el importe total de los gastos de los trabajos de consultoría y asistencia técnica para la elaboración y tramitación del documento a subvencionar, la forma de abono establecida y el importe del gasto previsto para el año 2021.

– Certificación del acuerdo o acuerdos municipales por los que se adjudicó la contratación de los trabajos de consultoría y asistencia técnica.

– Facturas o documentos que las sustituyan, acreditativos del coste de los trabajos ya ejecutados.

– Certificación del secretario municipal expresiva de que no se ha solicitado ni percibido subvención alguna para los trabajos objeto de financiación por medio de la presente ayuda.

6. *Notificaciones.*

La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.



1. eranskina

DIRULAGUNTZA ESKAERA, genero ikuspegia hirigintzako plangintzan txertatzeko gastuak finantzatzeko.

..... jaunak/andreak,ren izenean diharduenak (helbidea:), adierazten du egintza honetarako ahalmena duelak 202...ko ...n egindako bileran hartutako erabakiaren ondorioz, eta goian aipatutako laguntza programaren arabera dirulaguntza **eskatzen du jarduketara honetarako:**

<p>Jarduketaren izena:</p> <p>Zenbatekoa (BEZik gabe):</p>
--

Eskaera honi erantsita doaz dokumentu hauek: (jarri X)

- Dagokion udal organo eskudunak 6.2 oinarriari jarraiki dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.
- Erantzukizunpeko berariazko adierazpena (deialdi honen 2. eranskin gisa doan ereduaren arabera), ziurtatzen duena, batetik, ez duela erakunde onuradun izateko debekurik, eta, bestetik, xede bererako eskatu edo eskuratu dituen dirulaguntzak, diru sarrerak edo baliabideak.
- Aurrekontua, honakoak zehaztuta: dokumentua egiteko eta izapidetzeko aholkularitza eta laguntza teknikoko lanen gastu osoa, dirulaguntzaren xede dena; ordaintzeko ezarritako modua, eta 2021. urterako aurreikusitako gastuaren zenbatekoa.
- Aholkularitza eta laguntza teknikoko lanen kontratazioa adjudikatzeko udal erabakiaren edo erabakien ziurtagiria. Kontratazioa oraindik adjudikatu ez bada, dokumentazio hori dirulaguntza justifikatzen denean aurkeztu beharko da, 13.2.c) oinarrian ezarritakoaren arabera.
- Horiek ordezkatzeko dituzten fakturak edo agiriak, egin diren lanen kostua egiaztatzen dutenak.
- Udal idazkariaren ziurtagiria, laguntza honen bidez finantzatzekoak diren lanetarako beste dirulaguntzarik ez dela ez eskatu ez jaso egiaztatzen duena.

(Lekua, data eta sinadura)



Anexo 1

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN para financiar los gastos derivados de la integración de la perspectiva de género en el planeamiento urbanístico.

D./D.^a en representación de con domicilio en, facultado/a para este acto en virtud de acuerdo adoptado por en sesión de fecha, **SOLICITA** una subvención en el programa de ayudas arriba mencionado para la siguiente **actuación**:

Denominación:

Importe (sin IVA):

Se adjunta a la presente solicitud la siguiente documentación (marcar con una X):

- Certificado del acuerdo adoptado por el órgano municipal competente, solicitando la subvención en los términos de la base 6.2.
- Declaración expresa y responsable de no estar incurso en las causas de prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria, así como de las subvenciones, ingresos o recursos solicitados u obtenidos para la misma finalidad.
- Presupuesto en el que se detalle el importe total de los gastos de los trabajos de consultoría y asistencia técnica para la elaboración y tramitación del documento a subvencionar, la forma de abono establecida y el importe del gasto previsto para el año 2021.
- Certificación del acuerdo o acuerdos municipales por los que se adjudicó la contratación de los trabajos de consultoría y asistencia técnica. Si esta aún no se hubiera adjudicado esta documentación deberá ser aportada cuando se justifique la subvención, de acuerdo con lo que dispone la base 13.2.c).
- Facturas o documentos que las sustituyan, acreditativos del coste de los trabajos ya ejecutados.
- Certificación del secretario municipal expresiva de que no se ha solicitado ni percibido subvención alguna para los trabajos objeto de financiación por medio de la presente ayuda.

(Lugar, fecha y firma)



2. eranskina

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

2021eko dirulaguntzen deialdia, genero ikuspegia hirigintzako plangintzan txertatzeko gastuak finantzatzeko.

..... jaunak/andreakren ,i enean
d,zarduenak lze(l ,deab:)) ad,erai æn du et ,nó a zmeæarakm aza(2 ena due(a
.....k 0g0...km.....renn et ,ndakml ,(eran zaræækmeral ak,aren
ondorioz, eta honako hau **ADIERAZTEN DU:**

Ordezkatzen duen entitatea ez dagoela martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen egoeretan, onuradun izatea eragozten duten horietan, alegia.

(Lekua, data eta sinadura)



Anexo 2

DECLARACIÓN RESPONSABLE

Convocatoria de subvenciones de 2021 para financiar los gastos derivados de la integración de la perspectiva de género en el planeamiento urbanístico.

D./D.^a en representación de con domicilio en, facultado/a para este acto en virtud de Acuerdo adoptado por en sesión de fecha, **DECLARA:**

Que no concurre en la entidad a la que representa ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

(Lugar, fecha y firma)